

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2005eko ABUZTUA


Euskal AEko industri jarduera %4,6 hazi zen 2005eko abuztuan

2005eko lehenengo zortzi hilabeteko bilakaerak %2,6ko hazkundera izan zuen, 2004ko aldi beraren aldean

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2005eko abuztuan, lan-egutegiko termino homogeneotan %4,6 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2004ko hil beraren aldean. Datu hori bat dator urtearen bigarren hiruhilekoan nabaritu zen industri jardueraren susperraldiarekin, eta urtearen lehenengo zortzi hilabeteetan %2,6ko hazkundera eragin zuen, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2005eko abuztuan %0,1 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin alderatuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileko hazkunde zuzendua



(*) 2005eko uztail-abuztuko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektore-bilakaera

Sektoreka, industri sektore handien sailkapena kontuan hartuta, 2005eko abuztuko indizearen bilakaerak honako aldakuntzak izan zituen, 2004ko abuztuaren aldean: *energia* %2,8 hazi zen, *ekipo-ondasunak* %8,7, *bitarteko ondasunak* %4,1 eta *kontsumo-ondasunak* %3,9. Azken horiek honela banatu ziren: *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* %7,0 hazi ziren, eta *kontsumo-ondasun iraunkorrak* %9,7 murriztu ziren.

2005eko lehenengo zortzi hilabeteen metatua, *ekipo-ondasunak* %5,9 hazi ziren, *bitarteko ondasunak* %1,3, *energia* %1,6 eta *kontsumo-ondasunak* %0,8, hots, *kontsumo-ondasun iraunkorrek* eta *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* izan zuten tasa berdina (%0,8koa biak); horiek guztiak 2004ko lehenengo zortzi hilabeteekin alderatuta.

2005eko uztailaren aldean, 2005eko abuztuko hil arteko aldakuntza bestelakoa izan zen industri sektore handietan. Hil arteko hazkundeak izan zen *bitarteko ondasunetan* (%2,7), baina gainerako sektoreetan jaitsierak izan ziren: *energia* %5,0 jaitsi zen, *ekipo-ondasunak* %4,8 eta *kontsumo-ondasunak* %3,3; *kontsumo-ondasun iraunkorrak* %8,2 eta *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* %0,8.

Bilakaera lurralde historikoaren arabera

Lurralde historikoei dagokienez, abuztuko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak positiboak izan ziren lurralde guztietan: %11,7 hazi zen Araban, %3,5 Bizkaian eta %3,1 Gipuzkoan.

Lurraldeetako hil arteko hazkunde-tasen (2005eko abuztuko datu desestazionalizatuak, urte bereko uztailaren aldean) bilakaerak desberdinak izan ziren hiru lurraldetan: Araban %1,1 hazi zen, Bizkaian %0,1 eta Gipuzkoan %1,1.

Taula: 2005eko ABUztua. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	abu05/abu04	At/At-1 (1)	abu05/uzt05	uzt05/eka05
Indize orokorra: Euskal AE	4,6	2,6	-0,1	0,0
Araba	11,7	1,2	1,1	-1,3
Bizkaia	3,5	2,5	0,1	0,4
Gipuzkoa	3,1	3,5	-1,1	0,4
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	3,9	0,8	-3,3	1,9
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-9,7	0,8	-8,2	3,2
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	7,0	0,8	-0,8	1,2
Ekipo-ondasunak	8,7	5,9	-4,8	0,4
Bitarteko ondasunak	4,1	1,3	2,7	-1,4
Energia	2,8	1,6	-5,0	2,4

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi berdinen aldean

Iturria: Eustat

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 e-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp